

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

2846

EBAZPENA, 2019ko ekainaren 6koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduran hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik kanpo geratu diren izangaien behin betiko zerrenda. Hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu zen.

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez (2019ko martxoaren 7ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin zen.

Aipatutako aginduaren 2.1.f) oinarriak ezartzen duenez, irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharra dago hautaketa-prozesuan parte hartzeko.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 27ko Ebazpenaren bidez onartu zen hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik kanpo geratu ziren izangaien behin-behineko zerrenda.

Behin-behineko ebazpen horren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, eta horiek aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduran hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik kanpo geratu diren izangaien behin betiko zerrenda. Hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu zen.

2. artikulua.— Ebazpen hau eta behin betiko zerrenda, interesdunei jakinarazteari begira, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

– <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) – «Emaitzak» – «Hizkuntza-eskakizuna».

– <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> - «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» – «Aurreko probak: gaztelania eta euskara» – «Irakasleen hizkuntza-eskakizuna ziurtatzea».

3. artikulua.— Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari; hilabete izango dute horretarako, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 6a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
JON AGUIRRE HUERGA.